

Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) idazteari buruzko aurretiko kontsulta publikoa

Aurretiko kontsulta publiko hori Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren (HAPO) barruan sartzen da, eta haren helburua da, lehenik eta behin, azaltzea zer arazo konpondu nahi diren ekintza horrekin, zer behar eta aukera dagoen plana onartzeko, zer helburu dituen, eta zer irtenbide alternatibo dauden arautzeko eta ez arautzeko. Bigarrenik, herritarren ekarpenak jasotzea.

Hala ere, aipatu behar da HAPOren herritarren parte-hartzea askoz ere zabalagoa eta sakonagoa izango dela datozen hilabeteetan, hainbat ekintza aurrez aurre eta digitalen bidez, eta horien berri emango da etengabe.

Noiz: 2022ko apirilaren 4tik apirilaren 18ra.

Nola: Herritarren Partaidetzarako web orriaren esteka honen bidez, aurretiko kontsulta publikoen atalean:

https://www.donostia.eus/app/info/ayuntamiento/proyectos_normativos.nsf/fwHomeCon?ReadForm&idioma=eus&id=D338423

Consulta pública previa sobre la revisión del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) de Donostia

Esta consulta pública previa se enmarca en el Plan General de Ordenación Urbana (PGOU) de Donostia y su objetivo es, primeramente, explicar los problemas que se pretenden resolver con esta iniciativa, la necesidad y oportunidad de su aprobación, sus objetivos y las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias. En segundo lugar, recoger aportaciones de la ciudadanía.

Sin embargo, cabe mencionar que la participación ciudadana del PGOU será mucho más extensa y profunda a lo largo de los próximos meses y a través de diferentes acciones presenciales y digitales, de los cuales se irá informando continuamente.

Cuándo: Desde el 4 de abril hasta el 18 de abril de 2022

Cómo: A través del siguiente enlace de la página web de Participación Ciudadana, en el apartado de consultas públicas previas:

https://www.donostia.eus/app/info/ayuntamiento/proyectos_normativos.nsf/fwHomeCon?ReadForm&idioma=cas&id=D338423

1 Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak

Indarrean dagoen Donostiako HAPO 2010. urtean onartu zen. HAPO 12 urtez garatu ondoren, abiapuntuko kasuak nabarmen aldatu dira, horietan oinarrituta aurreikusi baitziren planeamenduko aurreikuspen eta irtenbide orokorrak, hiria 2010-2020 aldirako eraldatzeko.

Horrek arazo nagusi bat sortzen du: egungo hirigintza-araudia ez dago egungo egoerara egokituta, hiriaren egungo beharrak ase ahal izateko.

1 Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa

El vigente PGOU de Donostia fue aprobado el año 2010. Tras 12 años de desarrollo del PGOU, los supuestos de partida en base a los cuales se contemplaron las previsiones y soluciones generales de planeamiento para la transformación urbana de 2010-2020 han variado sustancialmente.

Esto genera el problema principal de que la normativa urbanística actual no está adaptada a la situación actual, para poder satisfacer las necesidades actuales de la ciudad.

2 Onartzeko beharra eta aukera

12 urtez HAPO garatu ondoren, beharrezkoa da berrikustea; izan ere, abiapuntuko kasuak nabarmen aldatu dira, horietan oinarrituta aurreikusi baitziren planeamenduko aurreikuspen eta irtenbide orokorrak, hiria 2010-2020 aldirako eraldatzeko.

Horrela, Donostiak bere egungo eskaeretara egokitutako hirigintza-plan bat izango du,

2 La necesidad y oportunidad de su aprobación

Tras 12 años de desarrollo del PGOU, es necesario revisarlo, ya que los supuestos de partida en base a los cuales se contemplaron las previsiones y soluciones generales de planeamiento para la transformación urbana de 2010-2020 han variado sustancialmente.

La revisión del PGOU permitirá a Donostia contar con un plan urbanístico adaptado a sus demandas

etorkizuneko beharrei erantzuteko gai izanez.

actuales, que sea capaz de responder a las necesidades de futuro.

3 Arauaren helburuak

3 Los objetivos de la norma

HAPO berriaren helburu nagusia, Donostiako lurzorua eta eraikinak arautzea eta antolatzea da, publikoak zein pribatuak.

El objetivo principal del nuevo PGOU es regular y ordenar el suelo y los edificios del ámbito municipal de Donostia, tanto los públicos como los privados.

Helburuak, hurrengo hauek dira zehazki:

Los objetivos son, concretamente, los siguientes:

- Udalerriko lurzorua (bai publikoa bai pribatua) sailkatzea:
 - Hiri-lurzorua
 - Lurzoru urbanizagarria
 - Lurzoru urbanizaezina
- Lurzorua kalifikatzea, erabilera xedatuz (bizitegikoa, jarduera ekonomikoak, zuzkidurak...).
- Bolumenak arautzea (eraikigarritasuna, lurzoriuraren okupazioari, altueri... dagokionez).

- Clasificar el suelo del municipio (tanto el público como el privado) en:
 - Suelo urbano
 - Suelo urbanizable
 - Suelo no urbanizable
- Calificar el uso (residencial, actividad económica, dotacional...).
- Regular los volúmenes (edificabilidad, ocupación del suelo, alturas...).

Laburbilduz, Plan Orokor berriak zer, non eta zenbat egin ahal izango den arautuko du, Donostiako eremu fisikoan, bai lurzoru publikoan bai pribatuan.

En definitiva, el nuevo Plan General regulará qué, dónde y cuánto se podrá hacer dentro del ámbito físico municipal de Donostia, tanto en el suelo público como en el privado.

Egon daitezkeen bestelako aukera erregulatuak eta ez-erregulatuak

Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias

Aipatutako helburuak hirigintza-antolamendutik bakarrik lor daitezke, eta horien formulazioa baztertu, ekin edo atzeratu egin daiteke HAPO berrikusiz.

Los objetivos antedichos solo pueden alcanzarse desde la ordenación urbanística, cuya formulación puede descartarse, acometerse o aplazarse desde la revisión del PGOU.

Era berean, HAPOk herritarren partaidetzarako ekintza ugari jasotzen ditu.

A su vez, el PGOU contempla múltiples acciones de participación ciudadana.